



18/06/01

Batzar Nagusiek aho batez onetsi dabe haztegieta dagozan enpresei Foru Aldundiak eta BEAZek eskintzen dituen zerbitzuak ebaluetako aukerea emongo deutesen ekimena

Batzarretako talde guztiek aho batez onetsi dabe gaur goizean, Ekonomiaren eta Lurraldearen Garapenerako Batzordean, Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeek hasiera batean Podemos Bizkaia aurkeztu dauen Arauz Besteko Proposamenari aurkeztutako zuzenketa-eske transakzionala. Horren bitartez, daborduko ezarrita dagozan tresnakaz jarraituta, Bizkaiko Foru Aldundiak eta BEAZ foru soziedadek haztegieta dagozan enpresei ekintzaitzaren eta hazkunderaren inguruan eskintzen deutesean zerbitzuak ebaluetako sistema bultzatuko da.

Podemos Bizkaia taldeko ordezkariak tresna horren garrantzia eta ebaluazioa modu anonimoan egiteko beharra azpimarratu ditu eta, gaur onetsi dan testuan ezarri dan aldizkakotasunagaz bat etorrita, “urtean birritan” egitea proponidu dau. Jatorrizko ekimenak “gabezia batzuk” eukazala azaldu dauen Euskal Sozialistak taldeko bozeroaleak eta “zerbitzu hobea eskini ahal izateko” tresna hori modu positiboan baloratu dauen batzordekide jeltzaleak eskertu egin dabe zuzenketa-eske transakzionala onetsi izana. Talde Popularraren eta EH Bilduren eretziz “bitxia” da hori aurretik egin ez izana, baina ekimenagaz bat etorri dira. Talde Mistoak be aldeko botoa emon dauenez, aho bateko adostasuna lortu da.

Eguneko gai zerrendea Imanol Pradales Ekonomiaren eta Lurraldearen Garapenerako Foru Diputatuaren agerraldiagaz osatu da, Talde Mistoak, Talde Popularrak eta Podemos Bizkaia eskatuta, hiru gairen inguruan berba egiteko. Gaiak honeek izan dira: Meaztegi Golfaren gaur egungo egoera, bere sailaren diru-laguntzetan gizarte arloko klausulak sartzeko proposamenaren betete mailea eta Bidesarea programea.

Talde Mistoko ordezkariak, komunikabideetan agertu diran azkenengo albisteak aitatu ditu, golf zelaiaren esleipena daukan Global Golf enpresak soldatak ordaindu ez izanaren gainean. Gai horri jagokonez, Pradalesek azaldu dau, joan dan apirilaren 12an Azpiegiturak foru soziedadek enpresa ustiatzaileagaz eta lantaldeko ordezkariak izandako bileraren ostean, Global Golf enpresak zezeileko eta martiko nomina atzeratuak 14 eguneko epean ordaintzeko konpromisoa hartu ebala. Hori bete ostean, enpresaren bigarren lehentasuna hornitzaileei eta hartzekodunei ordaintzeko plana ezartea izango da. Diputatuak azaldu dauenez, hori be martxan dago.

Aldundiko arduradunak baieztatu dauenez, “oraindino konpontzeko bidean dagozan” Global Golfen “diruzaintzako tentsinoak” arrazoi birengaitik sortu dira: esleipena egin zan unean instalazioek eukien egoerearengaitik, horren ondorioz hobekuntza lanak egin behar izan ziralako, eta diru-sarreretan eragin kaltegarria izan daben eguraldiaren baldintzengaitik. Halanda be, Imanol Pradalesek adierazo dauenez, Aldundiaren eretziz, “Global Golf Nortek ekonomiaren ikuspegitik iraunkorra dan epe ertaineko proiektua

aurkeztu dau”, jardueraren sorkuntzaren hazkunde eutsian eta “proiektuari finantza gaitasun gehigarria emongo deusan akziodun sendo bat” sartzean oinarritutakoa.

EH Bilduk, Talde Popularrak eta Talde Mistoak euren zalantzak agertu ditue diruzaintzako tentsino hori oinarritzen daben arrazoiak dirala eta. Talde Mistoko ordezkaria harrিতa agertu da, esleipena jaso eban enpresak aurretik ez ebalako kontuan izan instalazioen egoerea, eta EH Bilduk eta Talde Popularrak esan dabe danok ezagutzen dogula gure Lurraldeko eguraldia. EH Bilduko batzordekideak, gainera, esan dau Bizkaian ez dagola zelai horregaz bat datorren “horrenbesteko benetako eskaririk”. Podemos Bizkaia, bere aldetik, bideragarritasun plan bat existidutearen eta esleipenaren aurreko abonau kopuruaren gaineko interesa erakutsi dau. Une honetan enpresak 717 abonau dituan arren, Global Golfen benetako helburua 1.000 abonaura ailegetea dala adierazo dau. Dana dala, eskatu dauen datua helduarazoko deusala esan deutso.

Ordezkarri sozialista, bere aldetik, pozik agertu da egoerea konpontzen ari dalako eta, batez be, beharginak euren nominak jasoten ari diralako. Batzordekide jeltzaleak, ildo berean, bere taldea arazo horren aurrean arduratuta egoala autortu dau, baina gaur eskini dan informazioa positiboa dala.

Sailaren diru-laguntzetan gizarte arloko klausulak sartzeko proposamenaren betete mailari jagokonez, Ekonomiaren eta Lurraldearen Garapenerako Foru Diputatuak azaldu dauenez, joan dan apirilaren 28an diru-laguntzen araudia aldatzen dauen Foru Dekretua indarrean sartu zanetik ez da bestelako ezelango Dekreturik onetsi. Halanda be, esan dauenez, onespén horren aurretik be, Sailak sartzén ebazan genero ikuspegiari, ingurumenaren aurreko konpromisoari eta gizarte arloko erantzukizunari buruzko klausulak.

Talde Popularrak aurkeztu dauen azkenengo gaia Bidesarea Programari buruzkoa izan da, Bizkaiko bide sarea hobetzeko eta modernizetako plana, biurteko bitan egituratutakoa: 2015-2017 eta 2017–2019. Bigarren biurtekoak, Aldundiko ordezkariak azaldu dauen moduan, 43 jarduketa jasoten ditu Lurralde osoan, 101.574.000 euroko inbertsinoagaz. Gune desbardinak kontuan izanda, inbertsinoa holan banatzen da: Arratia–Nerbioi 14,8 milioi euro; Bilbo 8,4 milioi euro; Ezkerraldea/ Meatzaldea 15,8 milioi euro; Txorierri 12,2 milioi euro; Durangaldea 11,2 milioi euro; Enkarterri 15,8 milioi euro; Busturialdea 7,7 milioi euro; Lea – Artibai 10,1 milioi euro; eta, bukatzeko, Uribe – Eskumaldea 14,9 milioi euro.

NOTA DE PRENSA

01/06/18

Las Juntas Generales aprueban unánimemente una iniciativa que permitirá a las empresas ubicadas en viveros evaluar los servicios ofrecidos por la Diputación Foral y BEAZ

Todos los grupos junteros han aprobado esta mañana en el seno de la Comisión de Desarrollo Económico y Territorial una enmienda transaccional de los grupos Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos a una Proposición No de Norma inicialmente presentada por Podemos Bizkaia. Ésta impulsa, siguiendo con unas herramientas ya establecidas, un sistema de evaluación periódico de los servicios, en materia de emprendimiento y crecimiento, que la Diputación Foral de Bizkaia y la sociedad foral BEAZ ofrecen a las empresas ubicadas en los viveros.

La representante de Podemos Bizkaia ha incidido especialmente en la importancia de esta herramienta y en la necesidad de que se haga de manera anónima y ha propuesto, de acuerdo a la periodicidad que se ha estipulado en el texto hoy aprobado, que se realice “dos veces al año”. Tanto el portavoz del grupo Socialistas Vascos, quién ha explicado que la iniciativa original contenía “algunos déficits”, como el apoderado nacionalista que ha valorado positivamente esta herramienta de cara a “ofrecer un mejor servicio”, han agradecido la aceptación de su enmienda transaccional. Tanto Grupo Popular como EH Bildu han definido como “curioso” que esta acción no se estuviera realizando antes, aunque se han mostrado de acuerdo con la iniciativa. Sumando el voto a favor del portavoz del Grupo Mixto, se ha logrado la unanimidad.

El orden del día se ha completado con la comparecencia del Diputado de Desarrollo Económico y Territorial, Imanol Pradales, a petición del Grupo Mixto, Podemos Bizkaia y Grupo Popular en torno a tres cuestiones, respectivamente: la situación actual de Meaztegi Golf, el grado de cumplimiento de la proposición en la inclusión de cláusulas sociales en las subvenciones de su departamento, y el Programa Bidesarea.

El portavoz del Grupo Mixto ha hecho referencia a las últimas noticias publicadas en los medios de comunicación sobre impagos de nóminas por parte de la empresa adjudicataria Global Golf. A este respecto Pradales ha explicado cómo, tras una reunión el pasado 12 de abril de la sociedad foral Azpiegiturak con la empresa explotadora y con los y las representantes de la plantilla, Global Golf se comprometió a abonar las nóminas atrasadas de febrero y marzo en un plazo de 14 días. Tras cumplir esto la segunda prioridad de la empresa será la de establecer un plan de pagos con proveedores y acreedores, algo que según ha explicado el Diputado, ya está en marcha.

El responsable foral ha confirmado que las “tensiones de tesorería” sufridas por Global Golf y que “aún se está subsanando” responden a dos razones: el estado de las instalaciones en el momento de la adjudicación, con las consiguientes mejoras que tuvieron que realizarse, y las condiciones climatológicas adversas que han influido negativamente en los ingresos. No obstante, Imanol Pradales ha manifestado que, en opinión de la Diputación, “Global Golf Norte presenta un proyecto económicamente sostenible y a medio plazo” basado en el crecimiento sostenido de la generación de

actividad y en la incorporación de “un sólido accionista que aportará capacidad financiera adicional al proyecto”.

Tanto EH Bildu como Grupo Popular y Grupo Mixto han manifestado sus dudas por las razones que fundamentan esta tensión de tesorería. Mientras que el portavoz de Grupo Mixto ha expresado su extrañeza por el hecho de que la empresa adjudicataria no tuviera en cuenta previamente el estado de las instalaciones, EH Bildu y Grupo Popular han asegurado que es por todos y todas conocidas las condiciones meteorológicas del Territorio. El apoderado de EH Bildu, además ha manifestado que en Bizkaia no existe “una demanda real tan ambiciosa” acorde a ese campo. Por su parte Podemos Bizkaia se ha interesado por la existencia de un plan de viabilidad y por el número de abonados anterior a la adjudicación. A pesar de que ahora la empresa cuenta con 717 abonados el Diputado ha manifestado que el objetivo real de Global Golf es de llegar a 1.000, y que le hará llegar el dato que solicita.

Asimismo el representante socialista ha celebrado que la situación se esté subsanando y que, especialmente, la plantilla esté recibiendo sus nóminas. La apoderada nacionalista, en la misma línea, ha confesado que su grupo sentía preocupación por este problema pero que la información hoy ofrecida es positiva.

En cuanto al grado de cumplimiento en la inclusión de cláusulas sociales en las subvenciones del Departamento, el Diputado de Desarrollo Económico y Territorial ha explicado que tras la entrada en vigor el pasado 28 de abril de un Decreto Foral que modifica el reglamento de subvenciones, no se ha aprobado ningún Decreto. Sin embargo ha asegurado que previo a esta aprobación, el Departamento ya incluía cláusulas relativas a la perspectiva de género, el compromiso con el medio ambiente y la responsabilidad social.

La última de las cuestiones, suscitada por el Grupo Popular, ha sido en torno al Programa Bidesarea, un plan para la mejora y modernización de la red viaria de Bizkaia planteado en torno a dos bienios: 2015- 2017 y 2017 – 2019. El segundo bienio cuenta, tal y como ha explicado el responsable foral, con 43 actuaciones en todo el conjunto del Territorio con una inversión global que asciende a los 101. 574.000 euros. Teniendo en cuenta las distintas zonas la inversión se reparte de este modo: Arratia – Nerbioi 14,8 millones de euros; Bilbao 8,4 millones de euros; Ezkerraldea/ Meatzaldea 15,8 millones de euros; Txorierri 12,2 millones de euros; Durangaldea 11, 2 millones de euros; Enkarterri 15, 8 millones de euros; Busturialdea 7,7 millones de euros; Lea – Artibai 10, 1 millones de euros; y por último, Uribe – Margen derecha 14, 9 millones de euros.